

# Sagarraren festa ospatzeko prest daude Astigarragan



Iazko Sagar Uztaja jaia, Astigarragan / JUANFER

**Sagardogileek 2017ko uztaren heldutasunaren txostena aurkeztu eta sagarraren festa iragarri dute, hilaren 21, 23 eta 24an egingo dena**

EL DIARIO VASCO  Donostia

Jueves, 14 septiembre 2017, 15:59



Sagarraren heldutasuna aurreratuta dator eta dagoeneko sagardotegiak hasi dira sagar-bilketa lanetan, bai eta muztioa prestatzen. Hau da Fruitel eta Sagardoaren Lurraldeak eskatutako aurtengo uztako txostenak azpimarratzen duen lehen puntua. Datuok ateratzeko, irailean (azken urteetan bezala) Gipuzkoako sagasti desberdin batzuen kontrola egin zuten, produktuaren egoera ezagutzeko. **14 sagar barietate** aztertu dituzte: Aritza, Errezila, Gezamina, Goikoetxe, Manttoni, Moko, Mozolua, Patzolua, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Txiki eta Verde Agria.

Ondorioztatutako beste datu bat dio sagar-barietate arteko desberdintasun nabarmena da, nahiz eta "sagastietan ez den nabari, geografikoki kokapen desberdina eduki". **Aurreratuenak** Patzolua, Txalaka, Gezamina eta Mozolua izan dira. **Erdikoak**, Aritza, Urtebi Txiki, Manttoni, Urtebi Haundi, Urdin eta Verde Agria. **Atzeratuenak**, azkenik, Errezila, Moko eta Udare Marroi.

**Azukre** mailari begiratuta, iazko datua mantentzen da, 11,7 °Brix-ekin. **Almidoiaren** erregresioa, aitzitik, azken bost urteetako altuena da. 3,8ko indizean dago.

**Uztaja**

Uzta sasoiaren testuinguruan, Sagardoaren Lurraldeko ordezkariak 2017ko Sagar Uzta jairako aurreikusitako egitaraua aurkeztu dute. Urte osoan zehar sagardoaren elaborazio lanetan egiten den lana baloreari jarri eta sagarrondo eta sagastien garrantzia azpimarratzeko, Sagardoaren Lurraldeak Sagar Uzta jaia antolatu dute beste behin.

Irailaren 21etik 24ra bitartean jarduera ezberdinak egingo dituzte Astigarragan: tailerrak, ibilbideak, pintxo-pote berezia, sagar postre lehiaketa... Egun nagusia irailaren 24an ospatuko da Astigarragako Foru enparantzan. Bertan **sagarraren azoka** izango da, sagar eta muztio **dastaketa**, bertako baserrietako **produktuen salmenta**, etab. Gainera, urtero bezala, denboraldiko lehen muztioa egingo da bertaraturiko guztien artean **"topa herrikoia"** egiteko.

TEMAS Euskera



Recibe nuestras newsletters en tu email

Apúntate


Lo + leído

Top 50


- 1 Astigarraga se vuelca con la joven Julene
- 2 Sos Refugiados Hernani se levanta tras la quema de su furgoneta
- 3 El concurso de sidra natural llegará este viernes a Ontza elkartea
- 4 Aprobación inicial de un plan para el proyecto 'Leroy Merlin' con Donostia
- 5 Bertxin prepara la Semana dedicada a los mayores con actividades diversas




Noticias relacionadas




Miren Amurizak irabazi du Igartza eleberri-saria



Fermin Leizaola saritu dute "euskal etnografian urteetan zehar egin duen lan paregabeagatik"




Igartubeiti Baserri Museoak %40ko gorakada izan du bisitarien kopuruan abuztuan



Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea udal-liburutegi guztietara iritsi da

Fotos




El terremoto de México, en imágenes



Esperando a Irma



Marcando músculo



**Ahuachapán celebra el Día de los Farolitos**

Vídeos



**Rajoy recibe a Rivera para afrontar el desafío soberanista**



**Rosanna Zanetti: "Un bebé entra en nuestro planes"**



**PSOE y PP juntos para "defender la democracia"**



**Dancausa sobre Cataluña: "Fue un golpe a la democracia"**

EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.  
Domicilio social en Camino de Portuete, 2 San Sebastián 20018



vocento

ABC

ABC Sevilla

Hoy

[El Correo](#)

[La Rioja](#)

[El Norte de Castilla](#)

[Diario Vasco](#)

[El Comercio](#)

[Ideal](#)

[Sur](#)

[Las Provincias](#)

[El Diario Montañés](#)

[La Voz Digital](#)

[La Verdad](#)

[Leonoticias.com](#)

[Tus Anuncios](#)

[Infoempleo](#)

[Guapabox](#)

[Finanzas](#)

[Autocasión](#)

[Oferplan](#)

[Pisos.com](#)

[Mujerhoy](#)

[XL Semanal](#)

[Código Único](#)

[Eslang](#)